

HARTZAILEAK: DBH 3. eta 4. mailakoak.

DENBORA: 45 min.

HELBURUAK:

- Hondakinen arazoaz jabetzea.
- Hondakinen kudeaketa sistema ezberdinak ezagutzea.
- Ardura pertsonalaz hausnartzea.
- Jokabide egokiak ezagutzea.

EDUKIAK:

- **Hondakinen bilakaera historian zehar** (panela azaldu): Gizakiok betidanik sortu izan ditugu hondakinak. Panel honetan ikusiko dugu nola aldatu diren hondakin horiek historian zehar, orain dela milioi bat urte gaur egungo garaietaraino.
- **Hondakinen jatorria:** Lehengaien neurrigabeko ustiapenak, kontsumo eredu konpultsiboak eta hondakinen kudeaketaren egungo eredu linealak (ekoiztu-kontsumitu-bota) eraman gaitu amildegiaren ertzerara.
- **Gizakia hondakin sortzaile:** Giza jarduerak hainbat hondakin-mota eragiten ditu, hala nola, hiri hondakinak, hondakin sanitarioak, nekazaritza eta abelzaintzako hondakinak eta hondakin erradiaktiboak.

Herritar guztiok arazoaren eragile garenez (denok sortzen ditugu hondakinak), denon ardura da bere kudeaketa modu egokian burutzea.
- **Hondakinen bilketa sistemak:** Sistema desberdinak aztertuko ditugu: Edukiontzia, atez-atekoa, sistema mistoa, eredu bakoitzaren kudeaketa, abantailak, desabantailak eta eraginkortasuna aztertuz.
- **Hondakinen tratamendu sistemak:** Hondakinak tratatzeko sistemak aztertuko ditugu: **Zabortegi kontrolatuak**, bere onurak eta alde txarrak (usain txarra, lixibiatuak, metanoa, plagak); **Errauskailuak**, bere alde onak eta sortzen dituzten arazoak (dioxinak, furanoak, beste hainbat konposatu arriskuatsuak, osasun arazoak, e a.), eta konpostaje plantak, materia organikoa berreskuratzeke aukera bat.

JARDUERA: HONDAKINAK

- **Azpeitiko hondakinen kudeaketa:** Azpeitiko bilketa sistema aztertuko dugu, zer jasotzeko aukera dugun herrian eta nola egiten den, zer edukiontzi mota dauden, zer egiten den hauetan jasotakoarekin. Horrez gain, tratamendurako azpiegiturak azalduko ditugu: Lapatxeko zabortegi kontrolatua, konpostaje planta eta Garbigunea.
- **Hondakinak nola gutxitu, berrerabili eta birziklatu. Zer egin dezaket?** Kontsumo arduratsua, berrerabilera, birziklatzea eta hondakinen murrizketa guztion betebeharra da. Jokabide hau gure bizitzako esparru guztierara zabaldu behar dugu, hau da, lanera, etxera, aisialdira. Erakusgai dauden elementuen bidez, horretarako aholkuak emango ditugu.
- **Birziklatzearen adibideak (bitrina): Bertan jasota dauden adibide errealak azalduko ditugu.**
- **Hondakinen zirkuitoa Garapen Iraunkorraren jolasean:** Panelean asko erabiltzen diren hiru materialen (beira, papera eta plastikoa) bizi zikloa ikus dezakegu. Panelean lehio birakor batzuk aurkituko ditugu horiek mugitu eta **GORRIA**ren edo **BERDEA**ren geziekin parekatuz. Berdeak iraunkortasuna adierazten du eta gorriak iraunkortasun falta.

METODOLOGIA:

- Azalpenak emango ditugu panel, maketa eta elementu interaktiboetan oinarrituta.

GIDOIA:

- Dokumentua bera.